

Orain 25 urte jaio zen 'Zortziko Txikia' programa, Bizkaiko Bertsozale Elkartek eta Bilboko Udalak sortuta. Egun, 32 eskolak zein ikastolak eta 1.000 ikaslek baino gehiagok parte hartzen dute.

Bertsozaleak sortu nahian

Maite Azkuenaga Bilbo

Bilboko haurrak bertso mundura gerturatu eta umeen artean bertsoekiko zaletasuna sortzeko asmoz jaio zen *Zortziko Txikia* izeneko programa, orain 25 urte. Bizkaiko Bertsozale Elkartean eta Bilboko Udaleko Euskara, Gazteria eta Kirol Sailaren arteko elkarlana eskola gutxi batzuekin hasi bazen ere, erabat egonkortu dela uste du Josu Landeta bertso irakaslea. «Hasieran, Bilboko eskola publikoetan hasi ginen proiektua lantzen, eta apurka-apurka ikastoletara zabaltzen joan gara». Egun, 32 eskolak eta ikastolak eta 1.000 ikaslek baino gehiagok parte hartzen dute programan.

Hiruzpalau urtetik hona, *Zortziko Txikia*-ren parte dira Deustuko Salesianos ikastetxeko Lehen Hezkuntzako bosgarren eta seigarren mailako ikasleak. Josu Landeta gidari dutela, ehun neska-mutil inguruk lantzen dute bertsozaleen era arinean. «Guk gauzak transmititzen ditugu, baina modu ludikoan, ez eskolako eguneroko erritmoan». Eredua erakargarria da haur ugariarentzat, eta asko atsegin dute gainera. «Niri asko gustatzen zait bertsozaleen mundua», dio Ander Perez bosgarren mailako ikasleak.

Astero ordu bateko saioa izaten dute, eta txandaka antolatzen dira. Aste batean bosgarren mailakoak eta hurrengoan seigarren mailakoak dira Landetarekin. Bilintzen *Triste bizi naiz eta zein beste hainbat bertsozaleen bertso ezagunak kantatuz ikasten dituzte doinuak*. «Abestuz doinuak eta neurriak irakasten dizkigu», azaldu du Itsaso Garcia ikasleak.

Kantatzeaz gain, bertsolari ezagunei buruzko informazioa ematen die. Ondoren, ikasitakoa ondo barneratu duten jakiteko, galderak egiten dizkie irakasleak. Aste honetako pertsonaia Bi-



Deustuko Salesianos ikastetxeko ikasleek Josu Landeta dute bertso irakaslea. MARISOL RAMIREZ / ARGAZKI PRESS

linter da, eta haren bizitzari buruzko hainbat pasarte aipatu dituzte umeek: gaztea zela erori eta aurpegian kolpea hartu zuela eta karlistaldian bere etxe ondoan eroritako eskuko bomba batek eragindako oinazeaz hil zela, besteak beste. Irene Diaz ikasleak honela laburbildu du eskolan egindakoa: «Guk abestu eta bertsozaleen gauzak ikasten ditugu. Adibidez: bertso bat nola egiten den eta nor zen Bilintz».

Doinuez, neurriez, oinez eta gainerako elementuez gain, bertsolariak plazan nola jardun behar duen ere esaten die Landetak. Izan ere, garrantzitsua da zelan lan egin behar den jakitea. Oholtza gainean baleude bezala kantatzen dituzte eurek sortutako bertsoak klaseko aurreko aldean. Zenbait haurren aurpegian urduritasuna antzematen da. Baina lasai asko kantatzen duenik ere bada.

Haurren artean zaletasuna sortzeko ez ezik, euskaraz trebatzeko

ere balio du programak. Landetak B eta D ereduko umeekin lan egiten du. Euskara hutsez ikasten dutenek erraztasun handiagoa dutela nabari du. Hala ere, ikasleen motibazioa aipagarria da. «Jendea aktibatuta ikustea oso emankorra da, asko pozten

Eskolako eguneroko erritmotik at eta modu ludikoan lantzen dituzte bertsoak

Zaletasuna sortzeko ez ezik, euskaraz trebatzeko ere balio du programak

nau», adierazi du irakasleak. Iker Mayo ikaslearentzat ere garrantzitsua da egitasmoa: «Niri bertsozaleen mundua gustatzen zait. Euskara ikasteko eta hobetzeko balio digu. Horrez gain, bertsoak egiten ikasten dugu».

Ikasgelan landutakoa zapatuetan Bizkaia Irratiak aireratzen duen *Zortziko Txikia* irratsaioan erakusten dute. Astero eskola batek izaten du ordu erdiko saioaren ardura. Ikasturte amaieran Bilborocken egiten den topaketan ere egongo da euron bertsoak entzuteko aukera. Txotxongiloekin muntaketa bat osatzen dute, eta bertsoak abesten dituzte. Euskararen astean eta beste hainbat jaitan ere parte hartzen dute.

Bizkaiko Bertsozale Elkartek zein Euskal Herrikoak egitasmo asko dituzte. Bertso eskola edo bat-bateko taldeen helburua da harrobi gisa jardutea. Eskola arautuei dagokie umeak zaletu eta bertsozaleen mundura erakartzea. Horrek bertso saio zein txapelketak jarraitzea eraman go baititu gazteak. Era berean, eskoletan hasitako lana bertsolari, gai-jartzaile edo epaile izateko bidea ere bada. «Guk, nolabait, gorago joateko zubia izan behar dugu», laburbildu du Landetak.

Arratiako kanta eta bertso ezagun batzuk bildu dituzte liburu batean

'Arratia aldeko kanta eta bertso zaharrik' izeneko lanean, 62 abesti inguru eta hainbat partitura daude

M.A.

Arratia ibarrari aspalditik dator kanta eta kanturako zaletasuna. Makina bat erromeria eta bazkaloste alaitu dira kopla zein abestien doinuekin. Eta altxor hori ezagutarazteko zein hedatzeko asmoz, *Arratia aldeko kanta eta bertso zaharrik* izeneko liburua argitaratu du Zertu kultur elkarteak, Arratiako Musika Eskolaren babesarekin. Guztira, 1.500 ale banatuko dituzte, doan.

Liburuak bi iturri izan ditu nagusiki. Batetik, Musika Eskolaren 25. urtemugaren ospakizuna biribildu nahi izan dute. Bestetik, Ruper Lekue eta Gontzal Mendibilek urteetan egindako lana batu. «Victor Dominguez musika irakaslea eta Ruper Lekue etorri ziren ideiarekin. Hainbat bilera egin ondoren, Zertu kultur elkarteak argitaratuko zuela erabaki genuen», azaldu du Iñigo Iruarri zaga *Begitu* hamabostekariko kudeatzaileak.

Arratia aldeko kanta eta bertso zaharrik bi atal nagusitan banatuta dago. Aurreneko 30 orrialdeetan, musika eskolaren 25 urteak laburbiltzen dira. «Iban Gortazar eta Naia Rodriguez musikariak eskolarekin harremana izan duten pertsonekin bildu dira, eta argazki batzuekin hornitu dute historia». Bigarren atalean, Ruper Lekue igorretarrak eta Gontzal Mendibil zeinuriztarrak orain 30 urte jaso eta grabatutako abestien hitzak ikus daitezke. «Lekue Arratiako baserrietan ibili zen, eta aiton-amonek kantatutako abestiak bildu zituen. Orain, kantu horiek paperera pasa dituzte», zehaztu du Iruarri zaga. Guztira, 62 kanta ingururen hitzak ageri dira, batzuk partitura eta guzti.



**Jatetxe alemana
Ein Prosit Bilbao**

LÖWENBRÄU ORIGINAL

Zabalguner plaza, 7 - 48009 Bilbo (BIZKAIA)
Tel.: 944-24 13 11

URDAITEGI ALEMANA
La Moderna
Alfonso Thateren ondorengoak

Colon de Larreategi kalea
48009 BILBO (BIZKAIA)
Tel.: 944-23 48 78 - Faxa: 944-24 32 79
www.thate.com



- Eguneko menua
- Catering zerbitzua
- Sasoiko platerak
- Menu bereziak

Ramon y Cajal, 24 • DEUSTUA
Tel.: 94 447 45 00
(S. Pedro plaza, frontoiaren atzean)

Aurkezpen ekitaldia

Joan den zapatuan, Igorreko Lasarte aretoan aurkeztu zuten liburua. Iker Allur, Argi Zameza eta Gontzal Mendibil musikariek parte hartu zuten ekitaldian. Trikiti, danbolin, gitarra eta bateriarekin batera abestu zuen Mendibilek. Zeinuriztarra ez zen izan oholtzara igo zen bakarra; Artea-gako eskolako ume eta gurasoak ere bertan egon baitziren. Lekuek bertso eta kantu bakoitzaren atzean dagoen istorioa kontatu zien entzuleei.